

## KOSTUEN EGITURA

Atal honetan kostuen egitura aztertuko dugu. Garrantzitsua da irabazi iturrien kalkuloak ondo egin ahal izateko eta gure enpresak dirurik ez galtzeko. Hasierako kostuak, hau da, lehenengo inbertsioak ere aztertu eta azalduko ditugu, hilabeteko kostuez gain.

Hasierako inbertsioak, enpresa sortzerakoan izango ditugun lehen kostuak izango dira, produktua ekoizten hasi aurretik. Adibidez, guk elkarlanean arituko garen enprekin eta bezeroekin kontaktuan jartzeko ordenagailu eta mugikorrak beharko ditugu, horiek izango dira gure hasierako inbertsioak.

HASIERAKO INBERTSIOA		
Mugikorraren programaren sorrera	5.000€	
Ofinizarako materiala	Bi ordenagailu (HP ZBook)	361,79 €/unitateko
	Mugikorra	150€
Guztira	5873,58€	

Bi ordenagailuak 723,58€tan erosiko ditugu. Mugikorraren programa egiteak 5000€-ko prezioa izango du eta mugikorrak 150€. Ondorioz, hasierako inbertsioetan 5873,58€-ko gastuak edukiko ditugu.

Gure enpresaren kostuak bi zatitan banatuko ditugu: kostu finkoak eta aldakorak. Finkoetan UGGASari hilabetero eman beharreko dirua, beraiek eskainitako lokalean egingo dugulako lan, bertan argindarra, gasa, interneta eta ura izango genituzke eta horregatik ez ditugu kostu finko horiek izango. Soldatak ere beste kostu bat izango dira, langile bezala lan egiteagatik soldata duhin batean sinesten dugu, horregatik, 1.500€-ko soldata bat ordainduko diegu langileei eta gero diru gehiago izaten badugu soldatak igoko genituzke.

KOSTU FINKOAK	
UGGASA → lokala	90€/hilabeteko
Soldatak	4 x 1500=6000€

<b>Guztira</b>	6090€
----------------	-------

Kostu aldakorretan aldiz beste hainbat gauza txertatu ditugu. Hasteko, erosiko ditugun mugikorren kantitatea beti ezberdina izango da, salmentak handiak izango balira gehiago erosiko genituzkeelako eta hain handiak izango ez balira gutxiago. Garraioaren prezioa ez da zehatza, bidali nahi duzun produktuaren pisuak edo bidaiaren distantziak baldintzatzen duelako prezioa, pisu handiko karga eta bidai luzekoa, pisu gutxiko eta bide motzekoa baino gehiago kostatuko zaigu. Horrez gain, mugikorrek irabaziko dugun diruaren %15 Media Marktentzat izango da. Bukatzeko, publizitateaz hitz egingo dugu. Guk irratian, telebistan eta egunkarian egingo dugu eta hauetan orduaren eta denboraren arabera egiten du gora prezioak. Hau da, goizean egiteak gehiago balio du arratsaldean egiteak baino eta publizitateak geroz eta denbora gehiago iraun, prezioak gora egingo dute, gainera, iragarkiak hiru toki desberdinetan egingo ditugunez, toki bakoitzean ezberdin kostatuko zaigu. Aurreko ataletan esan dugun bezala, Europa mailan garrantzia izan nahi dugu, horregatik guk egin nahi ditugun publizitateen prezioa da hain garestia.

<b>KOSTU ALDAKORRAK</b>		
Mugikorrak		219€ x 200
Garraio zerbitzua		19€/bidaiaK(x1)
Publizitate guztia	Irratia	8.500€ → 20 segundu (goizean)
	Telebista	1.000€ → 20 segundu (11-13)
	Egunkaria	1000€
Media Marktek mugikorren salmentatik eramango duena		11.250€
<b>Guztira</b>		<b>64.569€</b>

Ondorioz, aurreikusi dezakegu kostu finakoak eta kostu aldakorren batura eginda gure enpresak 76.532,58€-ko diru irteerak izango dituela hilabetero gutxi gora behera, kostu aldakorrak beti ezberdinak izango direlako.